

ELGOIBARKO AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

2. FASEA:

EUSKARAREN PRESENTZIA GIZARTE BIZITZAN

(LABURPERNA. 1993.ko martxoa)

ELGOIBARKO AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

2. FASEA:

EUSKARAREN PRESENTZIA GIZARTE BIZITZAN

(LABURPERNA. 1993.ko martxoa)

AURKEZPENA:

Eskuartean daukazun txosten hau SIADECO enpresak, Elgoibarko Udalaren eskariz, 1992. urtean egin zuen azterketa soziolinguistikoaren laburpena duzu.

Aipatu azterketa, 'Euskararen presentzia Elgoibarko gizarte bizitzan' izenburupean egin zen. Bertan, Elgoibarko kasuan Euskararen erabilera gizarte bizitzan zenbaterainokoa den aztertu zen. Azterketa hau arlo ezberdinetan burutu da, bakoitzeko egoera konkretua ezagutu asmoz.

Txosten osoa irakurri eta aztertzea neketsua izan zitekeela pentsatuz, laburpena egitea pentsatu genuen Elgoibarko Izarrako Zuzendaritza Batzordekook.

1993. urtean, SIADECOREn proposamenak aztertu ondoren, Udala eta Elkarteak Euskararen normalizazio bideari ekin behar diogunez, ezertan hasi aurretik egungo egoera zein den ahalik eta jende gehientsuenari helaraztea komenigarria dela iruditu zaigu.

Beraz, txosten honek Elgoibarko egungo egoeraren azalpen labur eta arin bat izan nahi du. Gaixoa ezagututa errazagoa izango baita irtenbidea aurkitzea.

ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarteak

"ELGOIBAR'KO IZARRA"
KULTUR ELKARTEA

AURKIBIDEA:

- 1.- Euskararen presentzia leku publikoetan.
- 2.- Euskararen erabilera gizarte-zerbitzuetan.
- 3.- Elgoibarko lantegiak.
- 4.- Udala eta Udal zerbitzuak.
- 5.- Euskararen erabilera Elgoibarko komunikabide sozialetan.
- 6.- Euskararen erabilera Elgoibarko elkarteetan.
- 7.- Euskararen erabilera festa eta jaietan.
- 8.- Euskarazko irakaskuntza.
- 9.- Ondorio nagusiak.

1.- EUSKARAREN PRESENTZIA LEKU PUBLIKOETAN.

1.1.- EUSKARA MINTZATUAREN PRESENTZIA LEKU PUBLIKOETAN:

* 3.306 elgoibartarren kaleko hizkuntz jokaera neurtu da:

- 832 Euskaraz (%25)

* Gaur egun elgoibartarron Euskara ezaqupena %60 da.

* Elgoibarko euskaldunen erdiak erabiltzen du Euskara kalean.

* Adinari dagokionean: zaharrak (%43) eta haurrak (%40) dira gehien erabiltzen dutenak. Gazteak (%22) eta helduak, berriz, (%19) dira gutxien hitzegiten dutenak.

Euskaldunak hartuta bakarrik, zaharren %60a, haurren %47a, gazteen %42a eta helduen %39a topatuko da Elgoibarko kaleetan Euskaraz hitzegiten.

* Giroari dagokionean:

Txikiteoa eta familia artekoa dira erdaldunenak (oso kezkarria).

Belaunaldi guztiek, adinekoek ezik, emaitzarik kaskarrenak famili giroko erabilera eman dituzte. Honek zera esan nahi du: Euskara adinekokin eta haurrekin erabiltzeko hizkuntza bezala hartzen dela, helduen arteko harremanak erdaraz garatuz. Haurrek eta gazteek, hizkuntza erabiltzeko orduan, helduen hizkuntzan, hots, erdaraz hitzegiten dute nagusiki familia giroan, Euskara alboratuz.

Datu bat: haurren erabilera: familian (%31)
jolasean (%50)

* Auzoari dagokionean:

Euskaldunenetik erdaldunenera: Altzola, San Roke, Herri erdia, San Pedro eta Urasandi.

* ONDORIOAK:

- Zaharrak dira Euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Helduak dira gutxien erabiltzen dutenak.
- Kezkagarria da familia arteko eta txikiteo giroa oso erdaldunduta egotea.

1.2.- EUSKARA IDATZIAREN PRESENTZIA LEKU PUBLIKOETAN:

* Oso datu garrantzitsuak dira, hauen bidez ezagutuko baitugu Elgoibarren irudi linguistikoa.

* Lehen begirada batean garbi ikus daiteke, oraindik ere Elgoibarko kaleetan dauden ageriko izen, errotulu eta kartelen %56,2 erdaraz darraiela. Horren ondoan, %11,2 bietara dago eta %32,3 Euskaraz.

Guztira erdaraz bi heren eta heren bat pasatxo Euskaraz.

Erdararen presentzia da nagusi argi eta garbi.

* Leku izenak (ofizialak eta ia erabat Udalak jarriak) Euskaraz daude.

Elkarte politiko eta kultural guztien izenak Euskaraz daude, baina jolas eta kirol elkarteena ordea, 4tatik 3 erdaraz.

Publizitate eta establezimendu izenetan erdara da nagusi. Publizitate komertziala da erdaldunena.

* ONDORIOAK:

- Elgoibarren Euskara kaleratze prozesu batean dago.
- Arlo komertzialean, Euskara sartzten baino ez da hasi, oraindik gehiena erdaraz dagoelarik

* BAINA ORAINDIK, ETA BERRESKURAPEN AZTARNA GUZTIEN GAINETIK, ERDARA DA BAI MINTZATUZ BAI IDATZIZ ELGOIBARREN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA.

2.- EUSKARAREN ERABILERA GIZARTE-ZERBITZUETAN.

- * Aztertu diren alorrak honako hauek izan dira:

Komertzioak.
Banketxe eta Aseguru zerbitzuak.
Osasuna

2.1. Euskara mintzatua:

- * Gizarte zerbitzuetako enplegatuen %59a euskalduna da.
- * Zerbitzu hauetako bezeroen % 46a Euskaraz aritzen da.
(beraiek aitortutakoaren arauera)
Neurketa erreala eginda %37a Euskaraz. Idealizazio bat ematen da.
- * Gizarte zerbitzuetan Euskararen erabilera ona da.
- * Komertzio alorra nahiko ondo dago: %39ak.
- * Finantz arloan asko jeisten da: %22ak.
Ezagupena %53a da.
- * Osasun eta Gizarte Ardura sailaren egoera ezin okerragoa da.
Elgoibarko anbulategitik egunean 450 lagun pasatzen dira.
Haur guztiak eta bestelakoen laurdena euskaldunak izan arren, zerbitzu osoa erdaraz eskaintzen da.
San Lazaro egoitzan ere, enplegatuek erdaraz (euskaldunek 'erdaraz gehiago') hitzegiten dute.
- * Nekazal zerbitzua nahiko euskalduna da. 4 langiletatik 3 euskaldunak. Baserritarrekin dituzten harremanak Euskaraz.
- * Erljio zerbitzuei dagokienez, apaizak euskaldunak dira. Jendearekin egiten diren bilerak bietara egiten dira. Kritau Ikasbidean 'Euskaraz gehiago' egiten omen dute.

2.2. Euskara idatzia:

- Denden izenen erdia eta iragarkien hiru laurden erdara hutsean dago.
- Eroski eta Aurrezki kutxak dira euskaldunenak.
- Barne funtzionamendu normalean, Euskararen erabilera anekdotikotzat jo daiteke. Lanarekin zerikusia duten idazkiak erdaraz egiten dira.

ONDORIOAK:

- Euskararen ezagupenaren aldetik, orohar herritarren ezagupena baino altuagoa da.
- Halere, Osasun eta Gizarte Ardura zerbitzuek bizi duten egoera oso larria da, herritar guztiengana iristen direnak izanik.
- Euskara mintzatuaren erabilera asko jeisten da 'gai serioak' tartean direnean: dirua, e.a.
- Euskara idatziari dagokionean, izen eta ageriko iragarkietan Euskarak ez du ia lekurik Elgoibarko gizarte zerbitzuetan.

3.- ELGOIBARKO LANTEGIAK:

3.1. EUSKARAREN EZAGUPENA:

* Langileen %50a euskalduna da.

- Tailarrean: %40.
- Bulegoetan: %74. (oso datu garrantzitsuak)
- Zuzendaritetan: %72.

3.2. EUSKARAREN ERABILPENA:

* Mintzatua:

- Euskaldunen erdiak erdara bakarrik egiten du.
- Bostetatik batek bietara egiten du.
- Euskaldunen %26ak bakarrik egiten du Euskaraz. (bostetatik lau baino gehiagotan erdaraz egiten da)

- Euskara gehien tailerrean egiten da.
- Bulegarien artean, nahiz eta eskaldun gehiago egon, ia ez da Euskararik erabiltzen.
- Zuzendaritzetan are gutxiago egiten da Euskaraz.

- Batzarretan, komite-bileretan e.a. Euskararen erabilpena desagertu egiten da.
- Telefonoz egiten den apurra bietara egiten da, nahiz eta barrukoekin erdaraz egiten den.

* Idatzia:

- Erdararen nagusitasuna erabatekoa da Elgoibarko lantegietako idazkietan.
- % 1,9 Euskaraz; % 18 bietara; %80 erdaraz.
- Lantegi handietan, txikietan baino gehiago idazten da Euskaraz.

* Lantegi txikietan erabiltzen da gehien Euskara.

* Bukatzeko ETXEPE Entrepresaren kasua aipatu behar da. Lantegi honek Euskararekiko duen jarrera Euskal Herrian gutxitan ematen den fenomeno da.

4.- UDALA ETA UDAL ZERBITZUAK:

* Ezertan hasi aurretik, Udalak hizkuntzaren erabilpenean duen erantzunkizuna azpimarratu behar da. Herritarrentzat lehen erakunde ofiziala eta hurbilena denez, berezko garrantzia dute Udalak hartzen dituen neurriek.

* 1986. urteko dekretuaren arauera, Elgoibarko Udalari 4. Helburu mailakatura dagokio: 'Gizarte-Izaera eta Izaera-Orokorrekoak diren Zerbitzu eta Administrari-Atalak osorik elebietan lanean jartzea'.

* Udalari buruzko atal hau bi multzo nagusitan banatu dugu:

- 1.- Udal zerbitzu propioak.
- 2.- Udalaren beste Zerbitzu nagusiak: kontserbatorioa eta polikiroldegia.

UDAL ZERBITZU PROPIOAK:

1.- Ezagupena:

- 69 langiletik 40 euskaldunak dira.
 - . Langileak %41.
 - . Bulegariak %79
 - . Zinegotziak %76.

2.- Euskara mintzatuaren erabilera:

- Udal enplegatu euskaldunen ia bostetik bik beti erdaraz hitzegiten du. Udal zerbitzuetako enplegatuen bi heren (%64) erdaraz mintzaten da beti eta noiznahi.
- Langileak dira, nahiz eta euskaldun gutxiago egon, Euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Euskara gehien telefonoz egiten da.
- Bulegoetan oso Euskara gutxi egiten da eta bileretan Euskara desagertu egiten da.

- Nahiko kaskarra da Elgoibarko Udal-langileek ematen duten irudia, beren artean erdara baita nagusi.

3.- Euskara idatziaren erabilera:

- Behatutako inprimaki eta ageriko idazkien hiru laurden bietara dago.
- Bulegoetan dauden 23 langile euskaldunetatik 6k bakarrik idazten dute Eusakaraz.

UDAL ZERBITZUAK: KONTSERBATORIOA ETA KIROLDEGIA.

- Zerbitzu hauetako ihardueretan garrantzi berezia hartzen du hizkuntz erabilerak honako arrazoiengatik:

- . Erabiltzen dituztenak herriko haur eta gazteak direlako batez ere.
- . Atsedenaldiriko hizkuntz erabilera eragin handikoa delako.
- . Haur eta gazteek Euskara etxeko edota eskolako hizkuntza bezala ikustetik, hizkuntza horretan funtzio gehiago betetzera pasako lirатеке, Euskara baloratzera eta erabilpen alorrak zabaltzera.

1.- Euskaren ezagupena:

- 35 langiletatik 22 euskaldunak dira (%63).
- Polikirodegiko enplegatuak kontserbatoriokoak baino euskaldunagoak dira.
- Monitore/irakasleak: 25, 12 euskaldunak (oso arriskutsua).
- Ihardueretan 683 pertsona ibiltzen da, 515 euskaldunak (%75). Euskaldunen partehartzea oso altua da.
- Kontserbatorioko 520 ikasletatik 400 euskaldunak dira (%80).

2.- Euskararen erabilpena:

- Zaitasunak Euskara erabiltzeko irakasle/monitoreak erdaldunak badira.

Kontserbatorioa:

- 10 monitore euskaldunetatik 4k bakarrik ematen dituzte klaseak Euskaraz. (ikasleak %80 euskaldunak).
- 20tik 4k Euskaraz. Hau ez bada aldatzen, alferrik dira D eta gainontzeko ereduak!

Kiroldegia:

- Monitore gehienak erdaldunak izanik, iharduerak erdaraz burutzen dira.
- Euskaldunen artean 'erdara gehiago' erabiltzen omen dute.
- Euskaldunen kopurua hain altua izanik, erdara baino ez da erabiltzen kiroldegian.

3.- Erabilpen idatzia:

- Kiroldegian idazten den guztia bietara egiten da.
- Kontserbatorioan, aldiz, barrura begira idatzitakoa erdara hutsean azaltzen da, eta kanpora begira, bietara.

ONDORIOAK:

- Udal zerbitzu hauetan orohar, erdiak ere ez dira Euskaraz mintzatzen dakiten udal-enplegatuak eta gutxiago dira, jakina, bere lana Euskaraz betetzen dutenak.
- Lehentasuna du:
 - . Hizkuntz eskakizunen plangintzaren jarraipen zehatza.
 - . Atsedeen iharduerei dagokionez. partaideen ezagupenak Euskaraz egindako edozein ikastaroren arrakasta ziurtatuko luke.
 - . Kontserbatorioan bereziki, haur eta gaztetxoek partaidetza hain handia izanik, ikastaroak Euskaraz garatzeko ahaleginak egin beharko liriateke berehalako batean.
 - . Beste horrenbeste esan daiteke kiroldegiaz, eta bereziki bertan egiten diren kirol moderno eta modakoetaz.

5.- EUSKARAREN ERABILPENA KOMUNIKABIDE SOZIALETAN.

* Bi arlo aztertu dira:

- Irrati emankizunak.
- Komunikabide idatziak: aldizkariak eta herriko kronikak.

Irrati Emankizunak:

- Herriko kronikak gehienbat Euskaraz zabaltzen dira, 5 irrati ofizialetatik bakar batean ematen baitira erdaraz (Radio Nacional).
- Herriko irrati libreak denbora gehientsuena Euskaraz emititzen du.

Komunikabide idatziak:

- Elgoibarren bi aldizkari daude: TXIXILIBAKIO (haurrentzat eta helduentzat). Bi aldizkariak Euskara hutsez egiten dira.
- Herri kroniketan hamarretatik bat inguru da Euskaraz argitaratzen dena. Erabilera ia itxurazkoa besterik ez da (batzuk hori ere ez).
- DV eta Correion ez da inolako albisterik eman Euskaraz azterketa egindako egunetan. Deian zatiak besterik ez eta Eginen kasu batzutan kronika osoa ere bai.

ONDORIOAK:

- Elgoibarren sortu diren komunikabideetan (Zazpiki eta Txixilibakio) Euskara hizkuntz nagusia edo bakarra da.
- Beste irrati gehienetan ere, Elgoibarko kronika Euskaraz egiten da.
- Radio Nacionalen eta egunkarietako kroniketan aldiz, Euskarak ez du lekurik hartzen (Egin salbu) .
- Garrantzizkoa da maila lokaleko irrati eta aldizkarien bidez Euskara sozializatzea eta Elgoibarko etxe guztietara iristea. Azpiegitura hau oso baliagarria izango da hizkuntz normalizazio prozesua bideratu ahal izateko.

6.- EUSKARAREN ERABILPENA ELKARTEETAN.

* Gero eta garrantzi handiago hartzen ari dira edozein motatako elkarteak.

* Elgoibarren 35 elkarte dauzkagu.

* Elgoibarko 12.135 biztanletatik 6.184 elkarte-bazkide dira. Elgoibartarren %50a bazkide da.

* Elgoibarren euskaldunak %60 badira, elkarteetan %65a da: euskaldunak elkarteetan biltzeko duten zaletasuna ikus daiteke.

* Elkarteetan sailkapen hau egin da:

- E. mistoak.
- Kirol e.
- Musika e.
- Kultur e.

* Kirol elkarteak dira erdaldunenak; aldiz, kultur elkarteak dira euskaldunenak.

* Elkarteetako zuzendaritzak oso euskaldunak dira: lautatik hiru.

Euskararen erabilpen mintzatua:

- Bazkideen arteko harremanetan erabiltzen da gehien Euskara.

- Bilera nagusietan eta zuzendaritza batzordeetan jaitsi egiten da, Euskaraz, bietara eta erdaraz oso pareko jartzen direlarik.

- Egoera nahiko ona bada ere, kirol munduaren egoera da aldaketan premia larriena duena.

Euskararen erabilpen idatzia:

- Elkarteek zabaltzen duten lehen inpresioa 'nahiko euskalduna' da (%8a bakarrik erdara hutsean).

- Bazkideei bidalitako gutunetan Euskararen proportzioa nahiko altua da.

- Idazkiak elebiduntzeko dagoen joera garbia da.

- Elkarte mistoak dira erdara gehien erabiltzen dutenak.

- Kultur elkarteetan Euskara hutsean bizi direnak badauden arren, joera nagusia 'bietara'egitekoa da.

- Musika elkarteetan %95 euskalduna izanik Euskara hutsezko dinamika bati hel dakioke.

Elkarteak antolaturiko iharduerak:

* Nagusientzat:

- Nagusientzat antolatutako ihardueretan 60 monitore/antolatzaile daude, 47 (%78a) euskaldunak.
- Partaideen aldetik, %70 euskalduna da.
- Erabilerari dagokionean, euskaldunen ia bostetatik batek nagusiki erdaraz hitzegiten du.

* Haurrentzat:

- Elgoibarko elkarteak ez dira gehiegi arduratzen haurrentzako iharduerak antolatzen (15 bakarrik).
- Iharduera hauetarako 49 monitore daude, 41 (%84a) euskadunak.
- Partaideen aldetik %84a euskalduna da.
- Erabilerari dagokionean, monitore euskaldunen ia bi herenek Euskara hutsean lan egiten dute.
- Partaideek errazago jotzen dute erdarara: euskaldunen %55 gehien bat Euskaraz hitzegiten du, heren batek bietara. Erdara hutsean aritzen direnak ere badira (heren bat).

ONDORIOAK:

- * Elgoibarren Elkarteetan biltzeko zaletasun handia dago.
- * Elkarte hauetan Euskararen ezagutza handia ematen da.
- * Elkarte euskaldunenak kultur eta musika elkarteak dira.
- * Erdaldunenak, berriz, kirol elkarteak (oso egoera kezkarrian).
- * Elgoibarko elkarteak euskalduntze prozesu batean murgitzea oso garrantzitsua izan daiteke, elkarteek herrian duten garrantzia kontutan izanik. Prozesu hau aktibatzeke, ezagutza maila altua dugu gure alde.

7.- EUSKARAREN ERABILERA FESTA ETA JAIETAN.

* Jaiek eta festek berezko garrantzia dute hizkuntzarentzat, gazte eta haurrentzat batez ere.

Euskararen ezaqupena:

- Antolatzaileetatik %29a bakarrik da euskalduna. Prestaketa lanetan aritzen direnak, berriz, %88a da euskalduna.

Hizkuntz tratamendua:

(AHOZKOA)

- Ikus dezagun festetako iharduerak zein hizkuntz tratamendu duten:

- . %61 Euskara hutsean egiten da.
- . %8 Euskara nagusiki.
- . %10 Erdara nagusiki.
- . %20 Erdara bakarrik.

Elgoibarko festa eta jaietan Euskarak leku nagusia hartzen du.

- Iharduera euskaldunenak 'euskal' giroarekin loturik daudenak dira: bertsoak, pelota, joko herrikoiak, e.a.

- Erdaldunenak, berriz, kutsu modernoagoa dute: zinema, erromeria, zezenak, futbitoak, e.a.

- Aipamen berezia merezi du haur jolasen heren bat erdara hutsean garatzeak. Haur guztiek duten Euskararen oinarria jakinda, epe motzera beraiei zuzenduriko ekintza hauek Euskara hutsez garatzea lortu beharko litzateke.

(IDATZIZKOA)

- Idazkietatik hamarretik sei Euskaraz egiten dira.

- Erdaldunenak xake jokoak eta futbitoak dira.

Haur jolasak ere ez dabilta oso urruti, lehen aipatu dugun arriskuarekin.

- Gainontzeko ihardueretan hirutatik bi Euskaraz egiten da.

* Hizkuntza bat egoera minorizatuan aurkitzen denean, irakaskuntzak lehen mailako garrantzia hartzen du hizkuntzaren normalizazio prozesuan, hiztun berrien sortzaile bihurtzen delako, minorizatua dagoen hizkuntz komunitate hori partaide berriez gehituz.

Hizkuntz ereduen banaketa:

- D erduan: % 45,5
- A erduan: % 34 (OHO eta Ertainak)
- B erduan: % 19

* A erdua eskolaurretik eta Hasiera Ziklotik desagertu egin da.

* BBB/UBI heren bat bakarrik A erduan.

* 5 urte barru A erdua desagertu egingo da Elgoibarren.

* Ikastetxe publikoak dira euskal erduak ezartzerakoan atzeratuena.

* Ikastola da aurreratuena: erdaldunentzat daukaten B erdua D erdua baita.

* Pribatuak (Pilar) D erdua eskolaurrean eta B OHOn.

* Ertainei dagokienean, biak daude Eusko Jaurlaritzak bultzatutako BIMALE egitasmoan sartuta.

* Elgoibar Irakaskuntza osoa Euskaraz izateko bideak urratzen ari dela esan dezakegu.

Erabilera:

- Ikasleen %70a euskalduna bada ere, %28ak bakarrik erabiltzen du (ikastetxe giroan baina klasetatik kanpo).
- Gai direnetatik %40 bakarrik egiten du Euskaraz.

- Eskolaurrean eta OHOk Hasiera Zikloan egiten da gehien.

- A erdua dagoen ikastetxeetan Euskara gutxiago erabiltzen da: hamarretik batek.

- B eta D erduak bakarrik dauden ikastetxeetan, berriz, % 50ak hitzegiten du.

- Euskaldunak bakarrik kontutan izanik:

. A erdua dagoen ikas.: % 38ak Euskaraz.

. B eta D erduak dauden ikas. : % 50ak Euskaraz.

- Ikastolan erabiltzen da Euskara gehien.

- Goi Zikloetako ikasleengan eragin nabarmena du eskolaz kanpoko giroak. Erdaldunenak dira.

Hutsuneak eta hartu beharreko neurriak:

* Hutsuneei dagokienean ikasleen interes falta azpimarratu dute OHOk hiru ikastetxeek. Irakasleen prestakuntza falta ere aipatu du batek.

* Ertainetan, berriz, interes falta, eredu euskaldunetara pasatzeko mailaketa eskasa eta ikasle kopuru altuegia azpimarratu dituzte.

* Hartu beharreko neurriak aipatzerakoan,

OHO: - Euskara balore erreala bihurtu.
- Interesa landu.
- Haurra motibatu.
- Gurasoak Euskararekiko motibatu.

Ertainak: - Neurri egokiak hartu (Administrazioak).
- Ikasleak kontzientziatu beharra aipatzen da.

ONDORIOAK:

- Gizartea eta irakaskuntza interakzioan daude eta biak dira ezinbesteko hizkuntzaren birreskurapenaren eta normalizaziorako.

Motibazioa:

- Ikastetxe guztietan ikusten da motibazioaren beharra, motibazio ezaren ondorioak bistan baitaude.

Ezagupena:

- Ezagupen baldintzak Elgoibarren nahiko ondo betetzen dira edota betetzeko bidean daude.

Erabilera:

- Ezagupenaren maila ona bada ere, erabilera nahiko baxua da. Lan handia egin beharra dago erabilera gehitzeko motibazioa landuz. Irtenbideak Irakaskuntza arloa gainditzen du.

GAZTE ETA HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA:

- Euskaldun osoen(euskaldun alfabetatuak/erdaldun euskaldunduak) beharra ikusten da. Hauek erreferentzi kualitatibo garrantzitsua osatzen dute, eredu eta akuilu gisa. Euskararen gorputzari datorkion odol berria da.

- Euskalduntze-Alfabetatze prozesu modernoa 1983. urtean hasi zen Elgoibarren:

Ikasle kopurua:	1983 - 183
	1985 - 216
	1990 - 173
	1991 - 190

- 180 ikasle urtero.

- Biztanlegoaren % 3,2a ari da urtero-urtero Euskara ikasten/lantzen (beste herrietan baino gutxiago).

- Euskaldunen artean oso gutxi sakontzen edo EGA ateratzen:
%1

- Erdaldunak Euskara ikasten: %5,4a.

(Azken bi datu hauek oso baxuak dira Elgoibarko Hiztun Komunitatea sendotzeko)

- Euskara ikasle gehienak hasierako mailetan dauzkagu. Gero utzi egiten dute. Goi mailetan oso ikasle gutxi dago. Kezkagarria.

- Arazo honek hausnarketa sakona eskatzen du eta oraingo ikasketa prozesuaren birplanteiamendua.

Ikaslegoaren ezaugarriak:

- Elgoibarren jaiotakoak: % 58a.

- Euskal probintzietan jaiotakoak: % 26a.

- Euskal Herritik kanpo jaiotakoak: % 15a.

(Kanpotik etorritakoen presentzia oso txikia da)

- Adina:

15-19	%14
20-24	%22
25-35	%46
35-+	%16

(beste herrietakoa baino altuxeagoa)

- Ikasten ari diren gehienak lanean ari dira: %38,5a.
Ikasleak eta langabetuak: %24a. Etxeko lanetan: % 13a.

ONDORIOAK:

- Euskalduntze-Alfabetatze matrikulazioa eragin edo sustatu behar da.
- Erdaldunei eta euskaldunei luzatu beharreko mezuak ezberdina izan behar du.
- Ikastaro trinkoen beharra somatzen da.
- Alfabetatze kanpaina zehatzak falta dira. Elgoibarren oso jende gutxi dago alfabetatzen edo EGA ikasten.
- Eskaintza sektorialen beharra ikusten da.

ONDORIO NAGUSIAK

Ezagupena:

- Elgoibarko bizitza sozialeko agenteen artean Euskararen ezagupena orohar altua da, herritarren batzbestekoa baino altuagoa.
- Osasun eta Gizarte ardurako alorra oso kezagarria azaltzen da:
 - Enplegatu erdaldunak.
 - Gizarteko esparru guztietara iristen da.
- Banketxe, kirol elkarteak eta lantegiak ere oso erdaldunduta daude.
- Euskaraz dakiten askok, oinarrizko ezagupena baino ez dute.
- Euskara gaitasun maila sakondu edo hobetu dutenak oso gutxi daude Elgoibarren.

Erabilera:

- Euskararen erabilpena baztertuta dago gizarte bizitzatik.
- Euskaldunen artean erabilera baxua dago.
- Kanean euskaldunen erdiak ere ez du hitzegiten Euskaraz. Beraz, herritarren laurdenak hitzegiten du (% 25ak).
- Gizarte zerbitzueta bezeroen herena eta erdiak bitartean.
- Elkarteetan bazkideen bostetatik bik.
- Lantegietan bostetatik batek.
- Gai 'formaletan' erdara da nagusi.
- Lanean: lanpostu baxuetan Euskara gehiago entzuten bada ere, goi mailako lanpostuetan erdara da nagusi nahiz eta euskaldun gehiago egon.
- Erabilpen idatziari dagokionean elebiduntze prozesua martxan dagoela esan daiteke.

Motibazioa:

- Euskara ez da elgoibartarrentzat prestijiozko hizkuntza.
- Euskara ezagutu arren, ez da erabiltzen.
- Konpromezuetara iristeko unea da, hitzetik ekintzetara iristeko unea. Egitasmo teorikoetatik urrats eta ekintza kokretu eta koordinatuetara pasatzea falta da.

ELGOIBARKO HERRITARREN EUSKARAREKIKO
IRITZI ETA JARRERAK

1.- IKUSPEGI OROKORRA.

A) EUSKARAREN EZAGUTZA:

- Azken bost urteetan ez da hizkuntz-gaitasunean aldaketa kontziente handiegirik egon. Egon dena txarrerako izan da.

- Elgoibartarren % 49ak euskalduntzat dauka bere burua; % 32ak, berriz, erdalduntzat .

- Euskararen transmisioak izan ditu hutsuneak Elgoibarren. % 47ak bi gurasoak euskaldunak izanik eta % 7k bietako bat, gaur egun % 46,7a da sortzez euskalduna.

- Elgoibarren pisu espezifiko handiena duen tipologia erdaldunena da, jarraian euskaldun alfabetatu gabeena. Urteen poderioz indarra galtzen joango badira ere, gaur egun guztiz baldintzatzen dute herriko bizitza.

B) EUSKARAREN ERABILERA:

- Ikus dezagun non erabiltzen den gehien Euskara:

- . Familian: %30
- . Ikastetxean: %23
- . Haur-gazte taldeak: %8,6
- . Adineko taldeak: %8,2

Euskarak ez du zabalpen orokorrik eta leku eta harreman konkretuetan baino ez da erabiltzen.

- Elgoibarko erdaldunek ez dute ia Euskararen presentziarik sentitzen.

- Elgoibarren oso zaletasun gutxi dago irakurtzeko. Irakurtzen dena erdaraz egiten da.

Euskaldunen herenak erosten ditu euskal liburuak.

- Elgoibartarren % 3a da Euskaraz edozer idazteko gauza. %90ak oso ohitura gutxi dauka Euskaraz idazteko.

- Irratiari dagokionean antzera entzuten da Euskaraz eta erdaraz.

- Elgoibatarron %38ak ez du Euskal Telebista ikusten.

Euskaldunok erdibanatu egiten ditugu orduak, erdarazko kateak zertxobait gehiago ikusten baditugu ere.

D.- ELEBITASUN ERLAZIOAK:

- Euskaldunon erdiak ez du trabarik aurkitzen Euskaraz egiteko.

- Erdaldunen % 60ak ez daki ezer Euskaraz.
- Familia da Euskararen gordeleku euskaldunon artean.

- Erdaldun bat dagoenean tartean denok erdaraz:
 - . Euskaldunon %57ak 'edukazio edo begiruneagatik'.
 - . Erdaldunen %75ak 'ez diskriminatzeke'.

(Egoera hau aldatu beharra dago normalizazio bidean jartzea nahi badugu)

E.- IRITZI ETA JARRERAK:

- Euskararekiko iritzi teoriko ezin hobea dute elgoibartarrek. Iritzi nagusiek Euskararen balioa azpimarratu eta Euskararen etorkizunaren aldeko apostua egiten dute.

Halere, Euskara jakitea ez dute euskaldun izatearen ezaugarri nagusi bezala jartzen.

F.- EUSKARAREN IRAKASKUNTZA:

- Elgoibartarron erdiak ez du Euskara ikasteko inolako ahaleginik egin, euskaldunak nahiz erdaldunak izan.
- %18a behin saiatu da.

H.- SEME-ALABEN IKASKETAK:

- D ereduak onarpen sozial osoa dauka euskaldunengan.
- Erdaldunek, berriz, B eta D ereduak aukeratzen dituzte.

I.- EUSKARAREN NORMALIZAZIOA:

- Euskaldunentzat 'Euskara alor guztietara iritsi behar da'.
- Erdaldunentzat 'Irakaskuntzatik hasi behar da'.

J.- ERAKUNDE OFIZIALEN ALDETIK:

- Jaurlearitzari:
 - . Euskaldunok: 'Euskarai lehentasuna'.
 - . Erdaldunak: 'Euskara erdararen parean'.
- Udalari:
 - . Euskararen erabilera areagotzeko plangintza, euskaldunon %48ak eta erdaldunen %31ak.

K.- ZER ZARETE?

- Elgoibartarron %45ak 'euskaldun hutsa' dion bitartean, %25ak euskaldun-espainola dio.
- Euskaldunon artean, %72ak 'euskaldun hutsa' dela dio.
- Erdaldunen artean, 'biak berdin' erantzun du %42ak.
- 'Euskaldunago' %61a, 'espainolago' %9a.

EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA:

- Euskararekiko jarrera eta iritziei dagokienean, euskaldunak erdaldunak baino beroago azaltzen dira.

- Euskara normalizatzeko neurriak aipatzerakoan, euskaldunen artean gehienak Euskarari lehentasuna ematearen aldekoak dira. Erdaldunek, berriz, martxa motelagoa nahiko lukete. Erdaldunentzat biderik egokiena 'tolerantzia'rena da.

- Ezagupenaren aldetik, gazteak dira alfabetatze maila altuena erakusten dutenak. Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago dira Irakaskuntza arautuari esker Euskararen ezagupenean abiatu direnak.

- Euskararen transmisioak garai txarragoak izan dituela dirudi. Euskaldun gazteen artean, gero eta errazago aurkitzen dira bi gurasoak edo bietako bat erdalduna dutenak.

-Erabilpen aldetik, adin guztietako erdaldunak oso Euskara gutxi entzuten duten bitartean, euskaldunen artean gazteenak dira gutxien erabiltzen dutenak.

- Komunikabide eta kultur mailako kontsumoari dagokionean, erdaldunek erdarazkoa bakarrik kontsumitzen dute. Euskaldunek, berriz, denbora banatu beharrean aurkitzen dira. Gazteenek badirudi erdarazko komunikabideen aldeko apostua egin dutela. Helduek eta adinekoek, irratia ezik, erdarazkoak euskarazkoak baino gehiago erabiltzen dituzte.

- Jende heldu euskaldunaren artean, oso erabilpen eskasa somatu da; etxeko sukaldean bakarrik erabiltzen dute Euskara. Talde honek pisu espezifikiko handia du: biztanleen %32a dira.

- Euskaldunen artean, Euskararekiko neurriak hartzearen aldekoak, gazteak eta heldu gazteak ageri dira.

- Erdaldunei dagokienean, berriz, heldu eta adinekoek ez dute Euskara ikasteko inolako ahaleginik egiteko asmorik.